



José Luis Muñoa | MARIAREN BIHOTZA IKASTOLA (DONOSTIA)

2. saria

(<http://mbihotza.net/>)

DBH

“KOSMODISEAN PARTE HARTZEA OSO ABERASGARRIA IZAN DA IKASLEENTZAT”

José Luis Muñoa da Donostiako Mariaren Bihotza ikastolako “Mamui” taldeko irakasle arduraduna. Talde horrek, hain zuzen, bigarren saria irabazi du.

Muñoaren iritziz, *“Kosmodisea eta pareko ekimenetan parte hartzea oso onuragarria da ikasleentzat, hainbat alderdiri erreparatuta: taldeko lana sustatzeko modu ezin hobea da; lanak aurrera ateratzeko autonomia handia lortu behar dute; eta oso baliagarria da sortzen zaizkien arazoak konpontzeko hartu behar dituzten bideak ikasteko”.*

- Zure ustez, ekimen honetatik zer iruditu zaie interesgarriena ikasleei?

- *Ikasleei asko gustatu zaie proposatutako arazoei irtenbideak emateko prozesua. Harro daude euren lanen kalitatearekin. Neuk ere argi ikusi dut zenbateraino gogobete dituen ondo egindako lanak.*

- Zer iruditu zaizkie emaitzak ikasleei?

- *Ziur zeuden egindako lana ona zela, eta jaso duten sariak berretsi du hori. Bigarren saria irabazi ondoren, beste talde batzuen lanak ikusi eta aztertu dituzte, eta horiei buruzko iritzi ona eman dute.*

- Zure iritziz, Kosmodisean parte hartuta, ikasleek zer balio positibo eskuratuko dituzte?

- *Proiektu honi esker, oso balio garrantzitsuak ikasteko aukera izan dute; baina nik bi azpimarratuko nituzke: taldeko kideen artean lankidetzarako prestutasunaren garrantzia (parte hartzea, zereginak banatzea, ideiak kudeatzea...) eta ekintza berriak egin behar direnean erabakiak hartzeko prozesua ulertzea.*

- Zer da, zure ustez, Kosmodisea 2009-2010eko gauzarik onena? Zer alderdi hobetuko zenituzke?

- *Ikasleek izan duten esku-hartzea hurbiletik aztertuta, ikasleek egindako lana eta izan duten ilusioa nabarmenduko nituzke.*

Bestalde, Kosmodisea ekimenari dagokionean, oso onuragarria dela esango nuke. Hainbat arrazoi daude hori pentsatzeko:

Beste taldeek egindako lana aztertu eta nor bere lana ebaluatzea hobekuntzarako bidean aurrera egiteko metodo bikaina dela iruditzen zait. Amaitutako lanari buruzko gogoeta egin ondoren, asko ikas daiteke; esate baterako, akatsak bilatu eta horiek hobetzeko prozedurak pentsa daitezke.

Landu beharreko gaiak proposatzeko aukera izatea ere oso motibagarria izan da ikasleentzat.

Eta, jakina, ohiko curriculumetik kanpoko baliabide berriak erabiltzea ere gauza ona izan da.

- Parte hartuko al duzue hurrengo Kosmodisean?

- *Nola ikasleentzat hala irakasleentzat, Kosmodisea esperientzia aberasgarria izan da. Gainera, lortu dugun sariak bultzatuta, indar gehiagorekin jardungo dugu lanean.*

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, oharrak, kritikak...

- Eguneroko lanaz gainera, azken lanetan izan ditugun arazo teknikoek eragin dizkigute zailtasunik handienak. Ikasleek bideo bat egiten zuten lehenengo aldia zen, eta onartu behar dut zailtasunei begira ez direla batere kikildu eta jarrera ezin hobea erakutsi dutela. Irtenbiderik onenen bila aritu dira, eta hementxe dugu emaitza, ageri-agerian.

Lanak egokitzean, ikus dezakegu ikastetxe bakoitzak oso bestelako baliabide teknikoak dituela, gainerakoekin alderatuta. Zaila izan liteke, beharbada; baina aholku moduan, derrigorrezkoa izan beharko luke guztiok lanerako tresna berberak edukitzea. Alegia, Planeta bakoitzeko kosmolanetarako erabiltzen diren programek berberak izan beharko lukete (eta software librean oinarritutakoak badira, hobeto).

Besterik ez. Oso pozik gaude egin dugun lan onagatik.